

Erreferentzia kodea: ES/NA/AACF/2/017

Izenburua: NAFARROA-ARABAKO OIHAN BARRUTIA

Datak: 1913-1970

Deskribapen maila: Funtsa

Bolumena eta euskarria: 4 instalazio unitate

Sortzailea: NAFARROA-ARABAKO OIHAN BARRUTIA

Erakundearen historia:

Oihan Barrutiak Sustapen Ministerioaren 1859ko ekainaren 12ko Dekretuaren bidez sortu ziren, eta haien eginkizunak 1881eko uztailaren 28ko Errege Dekretuaren bidez —mendi Ingeniarien kidegorako zerbitzu-jarraibideak eman zituen— arautu ziren. Zehazki, Nafarroa-Araba-Gipuzkoa Oihan Barrutia 1938ko otsailaren 26ko Aginduaren bidez eta 1940ko irailaren 30eko Aginduaren bidez —Baso Zerbitzuen antolaketa eta haietarako ingeniari eta mendietako laguntzaileen egokitzapena onartzen zituen— sortu zen. Nafarroa-Arabako Oihan Barrutia izena hartu zuen.

Nekazaritza Ministerioaren Erregelamendu Organikoa onartzean (azaroaren 28ko 3108/1968 Dekretua), Nekazaritzako Probintzia Ordezkaritzetan txertatu ziren. Nafarroan, Foru Diputazioaren ardura zen probintziako eta herrietako herri-basoen kudeaketa tekniko eta administratiboa —1841eko abuztuaren 16ko Legean, 1925eko azaroaren 4ko Errege Lege Dekretuan, 1899ko maiatzaren 30eko Errege Dekretuan, 1930eko ekainaren 30eko Errege Dekretuan eta 1908ko ekainaren 24ko Legean xedatutakoaren arabera—. Beraz, Estatuaren jabetzako mendien zuzendaritzara eta ustiapenera mugatzen ziren Nafarroako Oihan Barrutiaren eginkizunak, bai eta Lege orokorrak agintzen zizkien gobernu izaerako beste batzuetara ere.

Funtsaren antolamendua:

017.01 LANGILEAK

017.01.01 Espediente pertsonalak

017.02 ZERBITZUAK

017.02.01 Espediente orokorrak

Sarrera baldintzak:

Sarbide mugatua. Ebaluazio Batzordeak dokumentazioa murrizteko epea ezartzen ez duen bitartean, dokumentuak eskuratzeko, Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legearen 20. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.